



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

Escuela Infantil **OSTADAR** Haur Eskola

C/Irunbidea s/n Kalea  
31160 Orkoien  
Telefono/a-fax/a: 948326655  
ostadar@orkoien.com

ESKAERA ZK.....

# SARTZEKO ESKAERA

**OSTADAR HAUR ESKOLA  
2022/2023 IKASTURTEA**

*Kasu: EZ bete itzala duen espaziorik. Inprimakia bete baino lehen, argibide orokorrak IRAKURRI*

## 1.- HAURAREN DATUAK

Izen-abizenak:.....

Mutila      Neska      Jaiotze-data..... Nazionalitatea.....

Kalea:.....Zb.....Pisua.....Atea.....

Herria.....PK..... Telefonoak, Etxea..... Aitaren mugikorra.....

Posta elektronikoa..... Amaren mugikorra.....

Legezko tutoreen mugikorra.....

## 2.-FAMILIAREN DATUAK

### GURASOEN EDO TUTOREEN LAN ETA GIZARTE EGOERA

\*Ikasketa arautuak egiten ari badira, lanbidea *ikaslea* da eta enpresa *ikastegia*

AMA    AITA    TUTOREA

Izena:.....

Deiturak.....

NAN     ANZ     Pasaporteia Zb°.....

Lanbidea.....

- Lan egoera justifikatzen du  
 Enplegu bilaketa aktiboa justifikatzen du

Enpresa:.....

AMA    AITA    TUTOREA

Izena:.....

Deiturak.....

NAN     ANZ     Pasaporteia Zb°.....

Lanbidea.....

- Lan egoera justifikatzen du  
 Enplegu bilaketa aktiboa justifikatzen du

Enpresa:.....

## 3.- FAMILIA-EGITURA

Familiako kide kopurua.....

Deialdi berean bi anai-arreba edo gehiagorentzat eskaera (ikaspostuaren erreserba barne eta ez jaiotakoaren eskaera).

6 urte baino gutxiago duten bi edota seme-alaba gehiagoko familiei, puntu bat seme-alaba bakoitzeko

Familia unitateko kideren batek urritasun fisikoa, psikikoa edo zentzumenezkoa du ( %33koa aitortua)

Familia gurasobakarra.

Familia ugaria.

## 4.- PER CAPITA ERRENTAREN MAILA

Tartea.....

## 5.- BIZILEKUA ETA LANTOKIA

Ostadar Haur Eskolari baimena ematen diot Orkoien Udalari erroldaren ziurtagiria eskatzeko.

Aita edo Amaren enpresaren helbidea Orkoien dago

Ez     Bai.....Telefonoa.....

## 6.- BESTE IRIZPIDE BATZUK

.....

## BAREMOAREN PUNTUAZIOA

2. Lan egoera .....

3. Familia .....

4. Errenta .....

5. Bizilekua .....

6. Beste irizpide .....

**GUZTIRA**.....

## 7.-AUKERAK:

### ORDUTEGIA

**Jantokiarekin** Sarrera:7:45 - 9:30..... (Sarrera ordua idatzi)

Irteera:13:15 (lo kuluxkarik gabe)

Irteera:14:45 - 15:45..... (Irteera ordua idatzi)

**Jantokirik gabe** Sarrera: 7:45-9:30..... (Irteera ordua idatzi)

Irteera: 13:00

### HIZKUNTZA EREDUAK\*

1. Aukera:  Euskara edo elebiduna  Gaztelania edo elebiduna  
2. Aukera<sup>1</sup>:  Euskara edo elebiduna  Gaztelania edo elebiduna

<sup>1</sup> Bigarren aukera kontutan hartuko da baldin eta, plaza banaketa egin ondoren, lekurik badago.

**\*2022-2023 ikasturterako taldekatze modalitatea baita eredu linguistikoa ere familien eskariaren eta Hezkuntza Departamentuak egiten duen plangintzaren arabera aldatzen ahalko da (3/2022 Ebazpena, urtarrilaren 18koa,)**

## 8.- AITAREN, AMAREN EDO TUTOREAREN ZINPEKO AITORPENA

..... Jn/And  
Eskaera honetan eta agirietan diren datuak egiazkoak direla aitortzen dut.

Orkoienean, 202... (e)ko ..... (a)ren..... (e)an

Sinatua,

Orkoiengo Udala eta Ostadar Haur Eskola kudeatzen duen enpresa dira inprimaki honetan jasotako datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak. Datu horiek aurkeztu edo eskatu diren ikastetxerako izen-emate, eskaera eta matrikulari buruzko administrazio-prozedura kudeatzeko erabiliko dira. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 27.3 e) artikulua eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta Nafarroako Foru Komunitateko haur-hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua.

Jasotako datu guztiak beharrezkoak dira eskaerari erantzun ahal izateko, baita haurraren osasunari buruzkoak ere, horiek tratatzeko berariazko baimena ematen baitut eskaera hau sinatuz. Datu pertsonalak lege ezarritako segurtasun-neurriekin tratatuko dira uneoro, eta adingabearen ohorerako eskubidea, intimitatea eta irudia bera errespetatuko dira.

Datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Udalak eta Ostadar Haur Eskola kudeatzen duen enpresak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzaketean bitartean biltegitratuko dira. Halaber, Artxibo eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak hala agintzen ez badu. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta, zuzenak ez badira, ezabatzeko eskubidea duzu. Horretarako, Orkoiengo Irunbidea kalean dagoen Haur Eskolako bulegora edo ostadar@orkoi.com helbide elektronikora jo behar duzu.



## FAMILIENAKO INFORMAZIO OROKORRA

Urtarrilaren 18ko 3/2022 Ebazpenean aurreikusitako prozedura 2022-2023 ikasturtean ikastetxean matrikulaturik ez dauden haurrei aplikatuko zaie.

Ikaspostua eska dezakete:

- 2020an eta 2021ean jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak eta 2022an 16 aste beteta jaiotakoak.

Adopzio- edo harrera-prozesuan dauden haurren kasuan, dagokion egiaztagiria erantsiko da. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, horren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

## ESKAERAK

**Telematikoki:** [www.escuelainfantilostadar.com](http://www.escuelainfantilostadar.com) edo **aurrez aurre** 948326655 telefonoan edo [ostadar@orkoien.com](mailto:ostadar@orkoien.com) helbide elektronikoan hitzordua eskatuz.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- a) NANaren, pasaportearen, atzerriarrentzako bizileku-txartelaren edo aitaren eta amaren edo legezko ordezkarien nortasun agiriaren edo baliokidea den dokumentuaren fotokopia.
- b) Familiaren osaera frogatzen duen dokumentazioa:
  - Familia liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik. Baldin familia liburuan ageri ez den seme-alabarik bada familia nukleoan, bestelako dokumentazioen bidez frogatu beharko da adibidez, jaiotza agirien, banantze edo dibortzio epaien eta abarren bidez.
  - Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
  - Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hura ezartzen duen epai judiziala edo legez frogatzen duen dokumentua.
  - Guraso bakarreko familia-karneta.
- d) Errenta mailak frogatzeko agiriak.
  - Familia-unitateko kide konputagarri guztien errentaren gaineko zergaren 2021eko aitortpenaren fotokopia. Hori egitera behartuta ez badaude, beste errenta edo diru-sarrera batzuk jaso izana justifikatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, horien zinpeko aitortpena eta/edo zentroaren titularrak den toki-erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak, 2021 urteko familia-sarrerak zehazteko.
- e) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen agiria:
  - Haurraren desgaitasuna kalifikatzen duen ziurtagiria edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria eta/edo profesional batek egindako txostena, zeinetan deskribatzen diren hezkuntza premia berariazkoak ekar ditzaketen ezaugarriak.
- i) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.

## MATRIKULA

Epez kanpoko eskaerak heltze-ordenaren arabera esleituko dira. Eskaera egiteko unean plaza hutsen bat badago, posta elektronikoz jakinaraziko da, eta matrikula telematikoki [www.escuelainfantilostadar.com](http://www.escuelainfantilostadar.com) edo aurrez aurre egingo da, 948326655 telefonoan edo [ostadar@orkoien.com](mailto:ostadar@orkoien.com) helbide elektronikoan hitzordua eskatuta.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurraren Gizarte Segurantzako txartelaren edo txartelaren fotokopia.



- Matrikulari dagokion kuota ordaindu izanaren egiaztagiria
- Aitaren edo legezko ordezkarien 2021eko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren fotokopia. Ordainketa egitera behartuta ez badaude, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, 2021. urteari dagozkion errenten eta diru-sarreraren zintzeko aitortpena eta/edo urte horretako familia-sarrerak zehazteko zentroaren titularra den toki-erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak.
- Ordainagiriak helbideratuko diren banku-erakundearen kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia adierazita.
- Hala badagokio, haurra behar bezala artatzeko beharrezkoa den osasun-informazioa.
- Hainbat baimen sinatuta.

## TARIFAK

Tarifak aplikatuko dira 2022-2023 ikasturterako tarifak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuko 12/2022 Foru agindua, otsailaren 7koan ezarritakoarekin bat.

	Gehienezko tarifak
Jantokirik gabe	183€ / mes
Jantokiarekin	278€/ mes

Tarifa bakarra	5 € eguneko	Tarifa bakarra
----------------	-------------	----------------

Familiaren diru sarreraren arabera, murriztapenak egin ahalko dira ondoan azaldu bezala:

ERRENDA PER CAPITA <sup>1</sup>	JANTOKIRIK GABE	JANTOKIAREKIN
15.000€ edo gehiagoc	173	268
12.400,01 euro eta 15.000 euro artean	144	239
10.700,01 euro eta 12.400 euro artean	108	203
9.300,01 euro eta 10.700 euro artean	79	174
7.980,01 euro eta 9.300 euro artean	57	141
6.650,01 euro eta 7.980euro artean	35	119
5.500,01euro eta 6.650euro artean	0	66
4.500,01 euro eta 5.500 euro artean	0	58
3.350,01 euro eta 4.500 euro artean	0	56
3.350 euro edo gutxiago	0	52

Familia gurasobakarren kasuan, tarifen taula hau aplikatuko da:

<sup>1</sup> Familia unitatearen urteko errenta baloratzeko, per capita errenta hartuko da kontuan, hau da, familia unitatearen errenta zati familiako kide guztien kopurua. Honako hau da PFEZaren aitortpena aurkeztu behar duten familia unitateko kide bakoitzaren errenta individuala: Zerga-oinarriaren zati orokorra (507 laukia), gehi kapital higigarriaren etekinen saldo positiboa (8810 laukia), gehi ondare-eskualdaketen saldo positiboa (8808 laukia), salbu etxebizitza erosteko edo birgaitzeko jasotako dirulaguntzak (708 laukia), gehi PFEZaren ondorioetarako salbuetsitza jotzen diren gainerako errenta eskuratuak, hala nola baliaezintasun iraunkor absolutuko pentsioak edo baliaezintasun handikoak, kalte-ordainak, loteria sariak, edo aitak edo amak seme-alaben mantenturako ematen dituen urteko sariak (529 laukia), ken ezkontidearen alde konpentsazio pentsioagatik ordaindutako kantitateak eta elikatze urteko sariak, biak ere epailearen erabakiz ezarriak, eta bikotekide egonkorren alde ordaindutako kantitate legez galdagarriak (511 eta 822 laukiak). Familia unitatearen urteko errenta izanen da gurasoen edo legezko tutoreen 2021eko diru-sarrera edo errenta individual justifikatuen batura. Batura horri aurretiatzeko kuota diferentziala kenduko zaio, familia unitateko kide konputagarrien PFEZaren aitortpenetako (578 laukia).



ERRENTA PER CAPITA	JANTOKIRIK GABE	JANTOKIAREKIN
15.000€ edo gehiagc	154	238
12.400,01 euro eta 15.000 euro artean	127	211
10.700,01 euro eta 12.400 euro artean	95	179
9.300,01 euro eta 10.700 euro artean	69	153
7.980,01 euro eta 9.300 euro artean	0	66
6.650,01 euro eta 7.980euro artean	0	66
5.500,01euro eta 6.650euro artean	0	52
4.500,01 euro eta 5.500 euro artean	0	42
3.350,01 euro eta 4.500 euro artean	0	32
3.350 euro edo gutxiago	0	25

- Ikastetxean bi seme-alaba dituzten familiek %50eko deskontua izanen dute bigarren haurrentzat dagokien eskolatzeko tarifen.
- Bi anai-arrebek jantokia erabiltzen dutenean, lehenengoak errentari dagokion tarifa ordainduko du, eta bigarrenari gutxieneko tarifa egokituko zaio.
- Haur Hezkuntzako Zentroan matrikulatutako haur guztiek ordaindu beharko dute dagokien kuota, justifikatutako arrazoiengatik etortzen ez badira ere.
- Ordaintzen ez diren kuotak Entitate Titularrak egoki ikusten duen prozeduraren bidez eskatu ahalko ditu. Dena den, kuota bi hilabete jarraian ez ordaintzeak haurren baja ekarri ahalko du; hori 15 egun lehenago jakinaraziko da.